

Herri Administrazioa eta Erakunde Harremanak



Ibone Bengoetxea Otaolea

Bilbao, 1967

Ibone Bengoetxea Otaolea Bilbon jaio zen 1967an. Ezkonduta dago, eta seme bi eta alaba bat dauzka.

Psikologiako lizentziaduna da eta Solfeoko eta pianoko irakasle titulatu ere bada.

Bere jarduera profesionala egin du, alde batetik, gizarte ekintzaren arloan (kaleko hezitzailea, suspertzaile soziokulturala eta psikologoa izan da ume eta familien zerbitzu espezializatuan), eta, bestetik, garraioen arloan (Euskotren eta Metro Bilbao).

Beraren ibilbide politikoa 2003. urtean hasi zen Bilboko Udalean, eta erakunde horretan izan zen Zirkulazio eta Garraioen zinegotzia, Kultura eta Hezkuntzakoa, Kontrataziorako zinegotzi ekuordea, Alkatetzaren Kabinetako zinegotzi ekuordea, alkateorde eta EAJ-PNV udal

taldearen bozeramailea, hiru agintalditan zehar.

2011tik 2015era EUDEL-Euskal Herriko Udalen Elkartearen elkarteburu izan da, bai eta Europako Udalen eta Herrialdeen Kontseiluaren Batzorde Politikoaren kide eta Europako Kontseiluaren Toki Agintarien ganberako ordezkaria ere.

2015. urtetik Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako Foru Diputatu izan da.

Gaztelaniaz, euskaraz, ingelesez eta frantsesez hitz egin eta idazten du.

Ogasuna eta Finantza



José María Iruarrizaga Artaraz

Basauri 1956.

Ekonomialaria da, eta enpresen kudeaketako masterra du.

1980. urtetik 1987. urtera bitartean kanpo eta barru auditorea izan zen, eta azken urte horretatik aurrera zenbait ardura izan zituen Eusko Jaurlaritzan, besteak beste: Zerbitzuen zuzendaria Herrizaingo Sailean, Kupoko zuzendaria, eta Ekonomiaren, Aurrekontuen eta Kontrol Ekonomikoaren sailburuordea.

2003ko uztailean Ogasun eta Finantzen foru diputatu kargua hartu zuen, eta sail horretan dihardu bere bosgarren legegintzaldi honetan ere.

Gaztelaniaz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.

Enplegua, Gizarte Inklusioa eta Berdintasuna



María Teresa Laespada

Bilbao, 1965.

Soziologiako doktorea da Deustuko Unibertsitatetik. Politika Zientzietako eta Soziologiako lizentziatua.

Deustuko Unibertsitateko irakasle titularra Psikologia eta Hezkuntza Fakultatean. Droga-mendekotasunen Institutuko zuzendaria, drogazaletasunari eta beste adikzio batzuei buruzko masterraren zuzendaria, eta zientzia-aldizkarietako zenbait zientzia-batzordetako kidea.

Ikertzaile nagusia da drogazaletasunari eta beste adikzioi batzuei buruzko ikerketa arloan, eta Eusko Jaurlaritzak onartutako «bizi-kalitatea eta gizarte inklusioa» ikerketataldeko kidea. Mota desberdinetako 60 lan baino gehiago argitaratu ditu, eta toki, nazio eta nazioarte mailako 40 ikerketa-lan baino gehiagotan hartu du parte.

Beraren ibilbide politikoari dagokionez, legebiltzarkidea izan zen IX. legegintzaldian (2009-2012), PSE-EEren Euskadiko Batzorde Exekutiboko kidea (2009-2012), eta gaur egun PSE-EEren Bizkaiko Batzorde

Exekutiboko kidea da gizarte-politiken arduradun gisa.

Azken legegaldian Enplegua, Gizarteratzea eta Berdintasunaren diputatua izan da.

Gaztelaniaz eta ingelesez hitz egin eta idazten du, eta euskaraz ulertzen du.

Euskara eta Kultura



Lorea Bilbao Ibarra

Bilbao, 1968.

Irakasle Eskolako diplomaduna da, eta Euskal Filologiako eta Gizarte eta Kultur Antropologiako lizentziatua. Euskal Kulturako graduondokoa egin du eta goi-mailako hezkuntzako gaitasunen berrikuntza eta garapenari buruzko master bat.

Euskara irakaslea izan da Labayru Ikastegian, eta aisialdiko monitore eta ume eta gazteen hezitzaile; horrezaz gainera, Begoñako Andra Mari Irakasleen Unibertsitate-Eskolako irakasle izan da zenbait alditan: 1989-1990. ikasturtean, eta 1991-1992 ikasturtetik 1999-2000ra arte. Urte horietan departamentuko buru izan zen, idazkari akademikoa eta zuzendariorde akademikoa (2009. urtetik 2013. urtera).

Horretaz gain, kargu hauek izan ditu: Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustatzeko zuzendaria (2000-2005), Eusko Jaurlaritzako Kulturako aholkularia hizkuntza-politikarako (2005-2009), Bizkaiko Batzar Nagusien ahalduna (2011-2015), eta Euzkadi Buru Batzarreko burukidea, euskara, hezkuntza, kultura eta kirol

arlotako arduradun gisa. Iazko legealdian Euskara eta Kulturako foru diputatua izan da.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.

Gizarte Ekintza



Sergio Murillo Corzo

Barakaldo, 1981

Prestakuntza akademikoa Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatua da (2004), eta Zuzendaritza Garapenerako Masterra egin du Deustuko Unibertsitate Komertzialean.

Deloitte deritzon industria-enpresen eta zerbitzuen finantza-auditoretzan hasi zen lanean, bertan urtebete egon zen. 2005. urtetik, zuzendari dago Oruen, Amorebieta-Etxanon egoitza soziosanitarioa eta babespeko apartamentuak dituen zentroan.

Irakaslea eta zuzendaria izan da Orue eskolan (2006- 2011) eta aisialdi eta astialdiko begiralea eta zuzendaria izan da hamar urtez(2000-2010).

Herri Administrazioan 2011n hartu zituen lehenengo ardurak, Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarteratzea Sustatzeko zuzendari nagusi gisa, eta, 2013ko urtarrilean, Autonomia Pertsonala Sustatzeko zuzendari nagusiaren kargua hartu zuen, non azken legealdian ere jarraitu duen.

Euskaraz eta gaztelaniaz berba egin eta idazten du (ama-hizkuntzak biak), ingeles

estandarra eta teknikoa menperatzen du, eta frantsesaren erdi-mailako ezagutza du.

Azpiegiturak eta Lurralde Garapena



Imanol Pradales Gil

Santurtzi, 1975.

Zientzia Politikoetako eta Soziologiako doktorea da Deustuko Unibertsitateak. Haren prestakuntzaren osagarri dira: Kudeaketa Aurreratuko Masterra, IE Business Schooletik; Jakitearen Kudeaketako Masterra, Madrilgo Unibertsitate Politeknikotik (MUP), eta Lan Merkatuko Masterclassa, London School of Economics-etik.

Irakaslea da, eszedentzian, Deustuko Unibertsitatean; bertan eskolak eman zituen 1999-2007ko epealdian. Unibertsitate horretan kudeaketa-karguetan jardun zuen, eta DeustuLan Enplegu Zentroaren sustatzaile eta zuzendari nagusia izan zen (2004-2006).

2006an eta 2007an, Deustuko Unibertsitateko irakaslea izateaz gain, Bizkaiko Foru Aldundiko aholkulari izan zen. 2007-2011n, Bizkaia:xede (gaur egun, Bizkaia:talent) elkarteko zuzendari-kudeatzailea izan zen.

Bizkaiko Foru Aldundiak, Euskadiko enpresa eta unibertsitate ezagunekin batera, sustatzen duen elkarte horren xedea da talentua duten pertsonak Bizkaira erakartzea, bertan geraraztea eta inplikatzea.

2011ko uztailetik 2015eko ekainera, Ekonomia Sustatzeko foru diputatua izan zen. 2015eko uztailetik aurrera Ekonomi eta Lurralde Garapena Sustatzeko foru diputatua izan da.

Iraunkortasuna eta Ingurugiro Naturala



Elena Unzueta Torre

Zalla, 1973.

Elena Unzueta Torre Zallan jaio zen 1973an. Ezkonduta dago, eta bi seme ditu. Soziologiako lizentziaduna da EHU/UPVtik, eta landa-garapeneko teknikari espezializatua da. Toki-garapeneko teknikari legez bere ibilbideari ekiten dio Karrantza Haraneko Udalean (1999-2002). 2002. urteaz geroztik, bere lanbide-atazari ekiten dio landa-garapeneko teknikari legez HAZI fundazioan; bertan laguntza- eta aholkularitza-atazak egiten ditu landa-garapenaren arloan Bizkaiko Lurralde Historikoko udalentsat eta landa-ekintzaileentzat. Era berean, Euskadiko Landa Eremuko Emakumeen Batzordeko idazkari teknikoaz arduratzen da.

2009tik 2013rako epealdian, jarduera biok bateratu zituen: bere lanbide-jarduera eta Bizkaiko Txakolina Jatorri Izena Arautzeko Kontseiluko lehendakaritza.

Eremu politikoan, 1995. urteaz geroztik eta 2015 arte, zinegotzi eta lehenengo alkateordea, eta Euzko Abertzaleen Taldearen bozeramailea izan zen Zallako Udalean. Berean, Gizarte Ongizate, Osasun eta Kontsumoko batzordeburua izan zen (1995-2003), eta Euskara eta Kulturako batzordeburua izan zen (2003-2005).

2007-2009ko epealdian, Eusko Jaurlaritzaren Turismo-Administrazioko eta Lehiakortasuneko zuzendaria izan zen. 2013tik 2015era Kontsumobide-Kontsumoko Euskal Institutuaren zuzendari nagusia izan zen eta azken legealdian Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Foru Diputatua izan da.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.

Garraioak eta Mugikortasun Iraunkorra



Miguel Ángel Gómez Viar

Barakaldo, 1970

Hiri Soziologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean. Bere lan ibilbidearen zati handi batean Mugikortasuna eta Azpiegiturak arloetan egon da. Merkantzien Garraio Nazional eta Nazioartekorako Gaitasun Agiri Profesionala dauka. Lan Arriskuak Prebenitzeko goi-mailako teknikaria da; Laneko Segurtasuna, Higiene Industrial eta Ergonomian espezializatua.

Esperientzia handia dauka udalaren eremuan. 2003. urtetik Trapagarango Udaleko zinegotzia da, PSE-EE (PSOE) alderdiaren ordezkartzan. Gazteria, Kirola eta Ingurumeneko zinegotzia (2003 – 2007). Une honetan Sozialisten Udal Taldeko bozeramailea da Trapagarango Udalean, 2015. urtetik. 2015. urtetik Ezkerraldeko eta Meatzaldeko Mankomunitateko ordezkaria da.

Emuial Etxebizitza eta Lurzoruaren Udal Enpresako gerentea (2007-2009), bai eta Abanto Zierbenako Industrialdea sozietatekoa ere (2009-2011).

2011. urtetik eta foru diputatu izendatu arte, Burtzena Enpresa Parkea sozietateko zuzendari gerentea izan da.

Miguel Ángel Gómez Bizkaiko Sozialisten Zuzendaritza Batzordearen barnean dago.

Aurreko legealdian 2018. urtetik Garraioak, Mugikortasuna eta Lurraldearen kohesioaren diputatua izan da.

Sustapen Ekonomikoa



Ainara Basurko Urkiri

Mutriku, 1972

Zuzenbidean Lizentziatua. Espezialitate juridiko-ekonomikoa. Deustuko Unibertsitatea, Bilbao.

Enpresa Kudeaketa eta Administrazioan Masterra (MBA). Deustuko Unibertsitatea. Donostia.

“Competitividad empresarial y desarrollo Regional (CCEDR- MOC)” Kurtsoa. Deustuko Unibertsitatea-Orkestra. Bilbao.

2015.urtearen bukaeratik BEAZ foru sozietateko Zuzendaria izan da, sozietatearen helburua jarduera ekonomikoaren hazkundeari eta enplegu-sortzeari laguntzea, enpresa berritzaileen sorreraren eta izaera berritzaileko enpresa-proiektu garapenaren bitartez.

Bere ibilbide profesionalean Azaro Fundazioko Zuzendaria izan da. Erakunde honen misioa Lea Artibai eskualdearen lehiakortasunaren alde lan egitea da, enpresa berri eta berritzaileen sorrera sustatuz. Lea Artibaiko Garapen Agentziako Gerentea ere izan da. Erakunde honek ere tokiko garapen ekonomikoan dihardu. Bere lan eremuak honako hauek dira: autoenplegua, lanerako

prestakuntza, merkataritza eta turismoaren sustapena eta bestelako tokiko proiektuak.

Gainera, 2007-2012 urte bitartean Irakasle izan da Deustuko Unibertsitateko Humanitateen Fakultatean, Donostian.

Gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesez hitz egin eta idazten du.